

## areagotuko ditu

Aguraingo Udalak eta La Burundesak enpresak kontratu berezia sinatu dute Agurain eta Gasteiz arteko bidaiariaren garraio erregularrerako zerbitzuaren maiztasuna areagotzeko. Ostiraletik urtarri-laren 1era arte indarrean izango den kontratazioari esker, lanegunetan hamabi autobus zerbitzu eskainiko dira egunero; larunbatetan, bost; eta igandeetan, zazpi.



Astean 72 bidai gehiago izango dira Agurain eta Gasteiz artean. ALEA

## Jaurilaritzak giti atauria

Jaurilaritzak iragarri du Tubaceko lan batzordeak eta enpresaren zuzendaritzak hasierako akordioa lortu dutela. Asteazkenean kaleratutako informazioen arabera, zuzendaritzak onartu du langileen eskarrietako bat: EEE Enplegu Erregulazioko Espediente bertan behera utzi aurretik kaleratuak izan ziren langileak berriro lanera bueltatzea.



Langileek zazpi hilabete baino gehiago daramatzat



Elgoibarren aurkeztu dute Kukulaisi federazioa. TOPAGUNEA

## Aisialdia landuko duen Kukulaisi federazioa batu da GEU elkarte

Tokian tokian euskarazko aisialdia lantzen duten egitasmoak artikulatu eta garatzeko heburuarekin, Kukulaisi federazioa aurkeztu berri dute, Euskaltzaleen Topagunean biltzen diren eta aisialdia lantzen duten euskara elkarteek egindako hausnarketa-aren emaitza. Guztira, 14 euskara elkarte batu dira; tartean, Gasteizko GEU elkarte.

## Oiongo liburutegia berriz irekitzeko eskatu dute herritarrek

Oiongo liburutegia iaizko martxoan itxi zuten, pandemia zela eta, eta ez dute berriz ireki. Horren aurrean, idazki bat zabaldu du Oiongo Bizilagunak herritar taldeak *Change.org* plataforman. Eskualdean liburutegia itxita mantentzen duen herri bakarra dela gogorarazi eta zabalik izateko "arrazoi ugari" daudela azpimarratu du. Sinadurak batzen ere hasi da.



Oiongo liburutegia itxita dago iaizko martxotik. ARABAERRIOXABLOG



Eskoriatza Eskibel jauregiko parkea itxita. GASTEIZ TXIKI

## Ga na Es

Du  
riat  
zol  
dag  
gas  
lako  
esp  
Gas  
latu  
due  
lako

